

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregori Ajuriagojeaskoa Loroño

*Muxika,
Bizkaia
(1913-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1913an jaio zen Zarragoikoa baserrian, Bizkargi mendiaren magalean. Aita bertakoa zuen eta ama Larrabetzuko Erkingokoa. Umetan Eleizaldeko eskolara joaten zen, etxetik hiru ordutara, eta baita Kurtzeroko klase partikularretara ere. Boanerenean ikasi zuen josten eta josteko makina eskuan hartuta etxetik etxe ibiltzen zen. Gerra garaian, gudarien txamarrak jostearren herriko beste bost emakumerekin batera atxilotu eta sei hilabetez kartzelaratu zuten Bilboko Orue txaletean. Ondoko etxean bizi zen bere lehengusua gerra garaiko ertzaina izan zen. Bere aita uztargilea zen eta ama emagin lanetan ere ibili zen sasoi batean. Oso ondo gogoratzen zituen errepublika sasoitik Francoren sasoirako arteko kontuak. Herri bereko Txakale auzoko Egiluze "Egiluz" baserrira ezkondu zen. Beti aritu zen baserriko beharretan.

Zintak

MUX-015

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-03-31
- **Iraupena:** 138 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Zarragoikoa eta Zarrabekoa obusez erasotua

- **Erref:** MUX-015/003
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

1913ko Natibitate egunean jaio zen Zarragoikoan. Zarra Bizkargirako bidean dago. Etxea gerra denboran apurtu zituzten obusekin bertako bi etxeak, Zarragoikoa eta Zarrabekoa. Beraiek Gandariasen errentadoreak ziren eta ugazabak ez zuen nahi konpondu, baina eurek etxeak konpondu zuten eta Gregori han bizi izan zen ezkondu arte.

2. Umetan beti mutil artean

- **Erref:** MUX-015/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak marimutila zela esaten zion ez baitzuen neska zen lagunik. Etxean neba bat zuen eta alboan bi lehengusu, guztiak mutilak.

3. Elizaldeko eskolara 3 orduko bidea

- **Erref:** MUX-015/008
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Elizaldeko eskolara joan zen. Eskolarako bidean aldats beheara zegoenez ordu erdi tardatzen zuten, baina bueltan hiru ordu. Dorreko erlojuaren kanpaiei esker jakiten zuten zein ordu zen. Maisuak bere nebari estimua zion, oso azkarra zen. Gaur egungo udaletxearen azpiko aldean zegoen eskola.

4. Urdai zati bategatik soldadutzatik libre

- **Erref:** MUX-015/011
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:16:01. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Bere neba marinatik joan zen soldadu. Auzoko bat, "Lemonatxo" eskean ibiltzen zen, eta bere amari esan zion berak lortuko zuela bere neba soldadutzatik libratzea pobreaken errezoak asko balio zuela esanez; urdai zati baten truke atera zuen. Osabak ere oilo pare bat eman zizkion. "Lemonatxo" k

gizona ere gaixo zuen eta bizirauteko arazoak zituztenez, auzokoek laguntzen zioten.</p>

5. Burdinazko gerrikoa; lehengusua ertzain

- **Erref:** MUX-015/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bilbo hartu ez zezaten, jende asko aritu zen burdinazko gerrikoa egiten, bere neba ere, besteak beste. Bere lehengusua ertzaina izan zen eta kartzelan sartu zuten.

Transkripzioa

- Nungo jentie egon zan hori "cinturón de hierro" eitten? Nungo jentie, nungo gizonak egon zien hori zintturoie eitten?
- Hor orduen jente asko. Trintxerie "cinturón de hierro" trintxerie izen zan Bilbora gerra denporan sartu ez deitzezan, gero hor gerriek urten eban ta.
- Bertoko seme asko be egongo zien, ezta?
- Han soldadu? bai, asko. Nebie be joan zan ta.
- Zure nebie marinan esan dozu.
- Bai, baia hori gero izen zan. Hori "cinturón de hierro", hori gero. Bai, mariñetik bai eurrerau, bere berari toketan jakon zerien, baia gero urte batzuk paseute izen zan bestie.
- Eta zure lehengusuek-eta be egon zien gerran?
- Bai.
- Frentien?
- Bai, ertzaiña izen zan bat.
- A bai?
- Bai. Ertzaiña izen zan ta kartzelan euki eben ta.
- Ta nun egon zan kartzelan ba?
- Kartzelan Bilbon.
- Larrinagan?
- Bai, han egongo zan, Larrinagan orduen egoten zien-ta.

6. Preso gudarien txamarrak jostearren, beste 5 muxikarrekin kartzelara

- **Erref:** MUX-015/015
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerran 23 urte zituen. 6 hilabetez kartzelan egon zen, auzoen salaketa bat tarteko. Muxikan boluntario asko joan ziren gerrara eta "emakume"etan afiliatua zenez, beste emakume batzuekin batera gudarientzako txamarrak josi zituen. 6 emakume atxilotu zituzten, seiak muxikarrak, "las seis

mugiquesas": Miren Enbeita, Margari Euba, Miren Iza, Ziriaka Uribe, Gregori eta beste bat. Kartzelan ondo ikusiak zirela dio. Ur botila batekin konpondu behar zuten seiek, garbitzeko zein edateko. Botilak beraien izena zeraman: "las seis mugiquesas". Kartzelariak beraiei ematen zizkien berari oparitzen zizkioten pastelak-eta.</p>

Transkripzioa

- Zuk gerra denporan hogeta hiru urten euki zenduzen.
- Bai. Nik hogeitaz urte edo ez dakitz zenbet eukiko nittun.
- Hogeta hiru.
- Neu be kartzelara.
- Bai?
- Bai. Kartzelan sei hille bet eindde nau ni.
- Ta, zer dala ta hori?
- Txarra izen nitzelako.
- Zer pase zan ba? edo zelan harrape zaittuen edo?
- Bakizu zegaittik? Euzaok asko gure izen zostielako /izestielako/, euzaok asko gure izen.
- Ze pase zan ba, Gregori?
- Esan be ezin leike ein. Iñuzentiek halakoak! Ba boluntaridxoak urten eben gerra denporan Muxiken, boluntaridxoak bardin joan biher soldadu ta bardin joan biher deuelez boluntaridxoak. Eta gero, ba emakumek-edo esaten otsienak ba afilieue izen nitzen ni be emakumetan, ta ba akorde jakun jakiek eittie hareri, boluntaridxo doazenari, jakiek eittie. Ta ein gontsiezan, txamarrak orduen eroaten zien eta, txamarrak-eta, ein gontsiezan. Ta gero ba [...] ba boluntaridxo joan zienari emon be bai ta josten ibil giñezan ta josten ikisten ta koadrille bat ibil giñezan, ta sei egon giñezan gu kartzelan.
- Sei, nungoak? Nungoak ziñien?
- Gu hamen berton bueltakoak. Hortxe hurrungo etxekoa, han han kamiñoan handiko alderdikoa bat. Orduen hortxe behien bizi izen zan ha gero hara ezkondu zen baia. Ta gero beste bat, Enbeita, Miren Enbeita, beste bat. Ta Margari Euba beste bat. Ha ta Miren Iza. Sei, sei sartu giñezan, "las seis mugiquesas". Ta baia ondo ikusidhek izen giñezan kartzelan, ondo ikusitte izen giñezan, hori bai. Ta ondo ikusitte giñezan ta, Margari Euba horko Kurtzerokoa izen zan, tabernakoa, ta ha ha aparteu ein jakun koadrilletik baia beste bostok horko hurrungo horko euzunekoa beste bat, Miren Iza ta Miren Enbeita bestie ta Ziriaka Uribe, Ziriaka Uribe izen zan ta sei izen giñezan. Ta botille bete urraz arregle biher izeten gendun, holako botille bataz, botille bet ur emoten oskuen ta harexeaz arregleu, garbittasun dana harexeaz ein biher izeten gendun. Ta botilleri ipiñi otsien izena "las seis muxiquesas". Geu be okerrak izen giñezan. Baia kartzeleriek ondo ikusitte izen genduzen e! kartzelerie ondo, ondo ikusitte izen giñezan. Gero kartzeleriek lagune euki biher eukitten ban ta hareri erregaluek asko eitten dotsiezan /eittentsezan/ ta pastela-eta asko erregaletan otsiezan ta harek jan ahala baiño gehixau emoten otsien eta guri emoten euskun, ondo.

7. Kartzelan jateko txarra

- **Erref:** MUX-015/016
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kartzelako jatekoa ganora bakoa zela dio. Sototik deitzen zioten jaten joateko; baina, jatekoaren kolorea ikusita, buelta hartzen zuten jan barik. Txerriaren ozalearen kolorea zutela dio.

Transkripzioa

- Maletak euki genduzen artien pepin bizi giñezan han, baia gero maletak kendu. Ta bertako jatekoa jan ezin guk, eurek emoten ebena.
- Zeba?
- Ba ganora bako jatekoa. Ha kafesnie sotanoan egoten zan holako untzi baten, Ta eskillarak bueltakoak egon zien hara sotanora ta "¡el desayuno!" zarata eitten eben, ta txarridxen ozaliek bakizu zelako kolorie eukitten ban? eukitte ban haixe modukoa, goittik behera ikusten gendun goazela ta atzera bueltea ta gora. Jan barik.

8. Lau lagun sei hilabete preso; beste bi, urtebete

- **Erref:** MUX-015/017
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:29:08. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Gregorik 6 hilabete egin zituen kartzelan; Miren Enbeitak eta Ziriaka Uribek urtebete; Ziriakak "Pro Avi6n Euzkadi"rentzako (Euskal Selekzioaren partidu batean dirua batzeko sortutako batzordea) dirua batzearren egin zuen denbora gehiago. Boanarenean josten ikasten zebiltzanen delitu bakarra gudarien txamarrak jostea izan zen. Bilboko Orue txaletean egon ziren preso, kartzela baino goragoko txalet batean.

Transkripzioa

- Ta luzero egon ziñien holan, sei hilliek?
- Sei hille ein nittuzen nik.
- Zuk eta danak?
- Bik ein eben urte betena. Miren Enbeitak eta Ziriakak "Pro Avi6n Euzkadi" dirue batzen ebizela ta Ziriaka, Ziriaka eken izena, Uribe, diru batzen ibil zala ta kartzelara. Ta Mirenek, Mirenek ez dakitz zer euki eban intendentzidxe, ez dakitz zer euki eban. Ta gu josten ibil giñezan Boanien, Boana esaten gontsen hor, josten ibil giñezan ta. Guk ba boluntaridxo urten ebanari lelengoan txamarrak batzuk josi geuntsiezan ta haidxe izen zan gure delittue: txamarrak josten ein genduleko. Gu josten ikisten ibil giñezenak, hantxe.
- Ta nun egon ziñien? nungo kartzelan?
- Kartzelan?
- Nun?
- "Chal6 Orue".
- Durengon?

- Bilbon han goidxen. Kartzelien, kartzelie baiño apur bet goratxuau. Kartzelie beherau egon zan, ta goratxuau. Txalet bat izen zan kartzela ipiñitte.

9. Kartzelan etxetik eramandako koltxoiekin

- **Erref:** MUX-015/019
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

<p>Kartzelara joan zenean baino negar gehiago ez duela sekula egin dio. Etxera joan zitzaizkien atxilotzera. Gurasoek idazten askorik jakin ez arren aitak idazten zion. Indultua baino 10 egun gehiago eginarazi zizkioten. Lau etorri ziren etxera eta beste biak urte betena egin zuten. Etxetik eramandako koltxoietan egiten zuten lo.</p>

Transkripzioa

- Negar gehidxau ez dot ein haraxe joan nintzenien baiño. Negar ein nabela.
- Ta nun harrape zaittuen zuori? nun harrape zaittuen bertan josten zauziela?
- Gu? etxetik eroan.
- Etxera joan jatzuen? Zarrara edo hona?
- Ez, ez soltera egon nintzen hondiño. Bai, nik hemeretzi-hogei urte eukiko nittuzen, ez dakitz hemeretzi edo hogei urte ingeru eukiko nittuen.
- Ta zure amak eta aittek-eta disgustoa?
- Disgustoa harek.
- Eta ama eta aitte zer? joaten zien bisittan edo kartak idazten biezan-edo?
- Bai, asko ez eben jakitten, eskribitan asko ez baia aittek zeuzer kartie esbrikitan eban, ta hantxe, harik eta etxera boteu arte. Gero indultoa dala ta hamar egun gehidxau erain erazo eusten, Francok indultoa ein dabela ta, ba gero ba propagandie ein eben Francok indultoa ein dabela ta, ta hamar egun gehidxau erain erazo kartzelan.
- Eta indultoa zer dala ta etor zan?
- Ai, ez dakitz nik zer! indultoa eskatu eben ta, zer izen zan.
- Ta libre?
- Bueno, indultoa ba kartzelan dauzenak ataratie-edo izengo zan.
- Eta bestiek be bai zugaz batera urten zien?
- Gu etor giñezan lau etxera boteu ginduezan eta bi itzi zittuzan, harek urte betena ein eben. Ziriakak Uribek eta Miren Enbeitak harek urte betena ein eben.
- Eta lo nun eitten zenduen kartzelan?
- Lo? koltxoiek euki genduzen eta harexen ganien.
- Bakotzak bat?
- Etxien etxetik eroanda.
- Zuen etxeko koltxoie? orduen zuen bille joan zien etxera ta ganera zuek hartu biher etxetik koltxoie eroateko.
- Ba guk koltxoiek euki giñuzen ta ez dakitz nik. Mirenek e holako koltxoa txikitxu bet euki ban, aittek eukitten bala esaten eban, beren aittek ta ba han egon giñezan ta. Ha be ikusi gendun ta.

10. Gerrara derrigortuta joan baino, hobe boluntario

- **Erref:** MUX-015/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Boluntario joan ziren muxikarrak berez joan beharra zuten, baina beraien burua aurkezten zuten destino hobe lortu asmoz.

Transkripzioa

- Hori Francon denporan.
- Francon denporan.
- Bai. Franco famosoan denporan.
- Ta zuek be famosak eingo ziñien herridxen, ezta? sei andra kartzelan egotie normala ez zan izengo.

- Ez zan izen normala, baia hantxe egon biher guk, eroanda. Normala ez zan izen. Normala izengo zan ba josten hareri boluntaridxo joan zienari txamarak josi dotsiezela-eta, hori hori hori delittue da ba?
- Nortzuk ziren horrek boluntaridxoak-edo, muxikarrak zien?
- Muxikarrak zien boluntaridxo joan zirenak, ostantzien bardin joan biher ezta, soldadu? ze eroan eitten zittuezan, ta harek ein ziren leku hobatxuauak atrapetako-edo ba boluntaridxo presenteu. Baia egun asko ez, ostantzien be joan biherko eben /bikoben/ ta.
- Ta ze batallotan-edo ibil zan bertoko jentie bakizu? bertoko jentie ze batallotan-edo ibil zan-edo?
- Bertoko jenite ez dakitz.
- Danetarik egongo zan.
- Ez dakitz, ze etxekorik ez gendun euki han ta.

11. Franco ez zen palioaren azpian eramateko gizona

- **Erref:** MUX-015/023
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:39:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Primo de Rivera ostean etorri zen Franco. Zornotzako (Amorebieta-Etxano) jaietan egon ziren Francok agintea hartu zuela enteratu zirenean eta gerra etor zitekeela pentsatu zutenean. Antzina, Gorpuzti egunez-eta, gure Jauna palioaren azpian eramaten zen; Franco ere palioaren azpian joaten zen. Bere ustez Franco ez zen palioaren azpian eramateko gizona.</p>

Transkripzioa

- Franco aurretik Primo de Rivera be egon zan.
- Bai, Primo de Rivera egon zan. Ta Primo Riverari itzi ez eittiarren sublebeu ein zen Franco, Francok urten eban. Ta akordetan naz gu Zorrontzan egon giñezen, Zorrontzako jaidxek izen zien ta. Ta hantxe ba Francok urten dabela ta gerrie egongo ete dan jentie endredetan hasi zen. Ta halantxik endredeu.
- Halantxik endrede zan.
- Bai. Franco Franco lege z ipiñitte ez zan egon. Franco egon zan derrigorrez urtenda egon zan. Ta gero, santu bet edo gure Jaune niri nik arrabidxo hartu naben ikusi nabenien be. Zera, lehenau Gure Jaune palidxoan azpidxen eroaten zan atziñe.
- A bai?
- Bai. Gorpuzti egunez-ta palidxoan azpidxen joaten zan, eroaten eben. Ta Franco palidxoan azpidxen hartun eben, eta Gure Jaune eroateko lekuen Franco eroan eben palidxoan azpidxen. Ta nik Franco ez zala gizona palidxoan azpidxen eroatekoa modukoa pentseu naben, txarri bet zan ta.
- Txarri bet. Itzelak ein bazen, ezta?
- Bai. Franco, Francok biher dan modukoa /bidamodukoa/ izeteko, orduen errepublikiek urten eban ba itzi errepublikien zerien artien ein biher eban, harek harek ondo segiten ez badeu orduen pareu, ez berak urten ta bazterrak gizonok kartzelara eroan.

12. Gerraostean zaku-prizkinekin nahastutako ogia

- **Erref:** MUX-015/025
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Francok larregi iraun zuela dio, ez zela gizona. Bizimodua asko aldatu zen errepublika garaitik. Gerraostean, zaku-prizkinekin nahastutako ogia jaten zuten. Errementari baserriko gizonak zuen egunkariak gosearen inguruan zioen aipu bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Franco Franco existidu larrei ein euan, larrei. Franco ariñau kendu biher zan /bizan/, Franco ez zan gizona ta.

- Eta hemen parajien frankista asko egon zan?

- Ez dakitz nik. Egongo zien, beti egoten die lagunek-eta.

- Bai, ezta? danetariakoak egoten die beti.

- Egongo zien ta. Beti egoten die batan batzuk.

- Eta bizimodue zemat kanbidxe zan errepublika sasoittik Francon garaire?

- Bizimodue? Bakizu hor, hor behien gizon bat egon zan, gizon bat egon zan hor behien bizi izen zan, ta ba gerra ostien zaku-priztiñekaz eñiko ogidxe jaten gendun. Zaku-priztiñek bakizu zelakoak dizan? Zakuek ekarten dotsuzen /ekartentsuzen/ priztiñek? harexekin nahastien ogidxe, gerra ostien jaten giñun. Ta gizon batek hor behien bizi zen ha gizona, ta esan eban /esaban/ ba "¿qué dicen los papeles?" esan osten /esasten/ periodikuek ba urten eban orduen be, ta tabernara joan zanién: "¿qué dicen los papeles?" ta esan dotsien /esantsien/. Erderaz ein biher izeten zan sarriten ta, "¿qué dicen los papeles?" ta "pues esto y esto y" ba esaten eben eurek zer ta: "decian". Zelan esaten ban? "decian", ahaztu jat. "Decian" ez dakitz zelan, baia "pero más grande es el hambre", baia ez dakitz zelan esaten eban harek gizonak.

- Ahaztute?

- Baia zelan izen zan ba? sarri akorduen euki dot eta, oin ahaztu jat.

- Trankil. Eta hori gizona nungoa zan ba?

- Hor behekoa izen zan.

- Zelan deitten da hori etxie?

- Horrek etxiek "Errementaridxe", "Errementaridxa" deko etxiek, baia oin harek Gernikera joanda dauz.

13. Doña Regina maistra

- **Erref:** MUX-015/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:43:27. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Elizalden bi eskola zeuden: bata mutilena eta bestea neskena. Lehenengo

maistra doña Regina izan zen, erdalduna, Manolo eta Encarna ziren bere seme-alabak.

14. Kurtzeroko doña Pilarren eskolara zaldiz

- **Erref:** MUX-015/028
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:45:52. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara gustura joaten zen, ikasteko ahalegina egiten zuen. Azkeneko maistrarekin jolastu baino ez zuten egiten. Bere neba marinara joan zen soldadu eta bere aitag zaldia oparitu zion Kurtzeroko eskolara joateko, doña Pilarren eskolara. Eskola partikularrean ez zuten katiximarik ikasi.

15. Sokadantzan elizpean; don Baldomero abadea

- **Erref:** MUX-015/030
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:51:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola garaian, urrun bizi zirenak eguerdian, bazkalostean, sokadantzan jolasten aritzen ziren; euria bazen elizpean. Abadeak harrapatuz gero soka kentzen zioten siestan egoten zelako. Maistrak eskola gainean zuen gela bat eta bertan bazkaltzen zuen. Don Baldomero abade errigoitiarra zen Muxikako abadea, artziprestearen laguna zen eta sermoia emateko hari deitzen zion.</p>

16. Elizaldeko abadeak

- **Erref:** MUX-015/032
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:54:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Elizaldean don Baldomero, don Pedro "Garratza" eta don Bizenti abadeak ezagutu zituen. Domekero elizara joatea derrigorrezkoa zen. Eskola-egunetan baino denbora gutxiago tardatzen zuten domeketan.

17. Libe izena

- **Erref:** MUX-015/037
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:57:38. **Bukatu:** 00:59:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bere amaginarrebak alabari Libe izena jartzea nahi zuen, baina Franco garaia zen. Abadeak bataioan esan zien Libia izena jartzeko eta beraiek Libe deitzeko. Bertako abadeak Francoren aldekoak ez zirenez beste nonbaitera bidali zituzten, baina bertara bidalitakoak ere ez ziren Francotarrak, beraz, ez zuten arazorik izan.

Transkripzioa

- Euskerazko izenik ez?
- Euskerazko izena esango dotsut /esangotsut/. Ni hona ezkondu nitzenien famelidxe izen naben, ta hemeko amak, gizonan amak, Libe gure izen ban ipinttie izena nire alabieri, ta halantxik ipini be ein jakon. Ta Francon denporakoa izen zalez, ba esan euskun /esaskun/ abadien, kastigeute beste leku batetik hona etorritte egon zien abade bi kastigu moduen, ta harek abadien esan euskun /esaskun/: "nik Libia ipingo dot" esan zetan /esasten/ esan euskun /esaskun/ bautidxetan joan giñezenien, "Libia ipingo dotset, baia zeuek Libe deittuko dotsezue" esan euskun /esaskun/. Bestetarikoa izen zan, Francotarra ez zan izen abadie, ze kastiguz hona botaniko izen zan ta hemekoak beste leku batera bota zittuezan, berton egon zienak. Abadien majoak egon zien hemen ta botau boteu ein zittuezan hemetik, ez dakitz nora bota zittuezan. Ta hona etor zien beste batzuk kastigu moduen. Ta horixe esan euskun /esaskun/ abadien: "beittu, nik Libe ezin dot ipiñi" esan euskun /esaskun/, "baia Libia ipiñi eingo dot hemen, baia Libe deittuko dotsezue" esan euskun /esaskun/ abadien.
- Eta Libia jarri dotsazun orduen alabieri.
- Ta Libe deittuten jakon. Ta nire alabien Libe eken izena.

18. Heriotza: gaubela, andariak, hileta...

- **Erref:** MUX-015/042
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:04:56. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Lehen hildakoaren gorpua etxean izaten zen gaubelarako. Auzokoan joaten ziren etxera arrosarioa errezatzeke. Etxetik elizara andariak eramaten zuten, auzoko mutil gazteek.</p>

19. Sepulturak

- **Erref:** MUX-015/043
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:06:35. **Bukatu:** 01:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Sepultura zer zen kontatzen du. Norbait hiltzen zenean, kandela batzuekin otzaratxo baten gainean trapu dotore bat jartzen zen eta bertara diru apur bat botatzen zen. Abadeak meza ostean bertan erreztatzen zuen.</p>

20. Behia exijitzen

- **Erref:** MUX-015/052
- **Iraupena:** 0:05:17. **Hasi:** 01:13:49. **Bukatu:** 01:19:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Aitagarreba Frantziara joan zen ihesi. Gregori ezkondu eta gero, bere aitagarrebak etxeko behiak eraman zituen. Batek behia eman zion amagarrebari, eta gero behi hori emateko exijitu zion; baina berak jada ez zuen behirik. Kartzelara eramango zutela mehatxatu zioten. Istorio horretan gertatutakoa zehatz-zehatz kontatzen du Gregorik.

21. Errota asko

- **Erref:** MUX-015/055
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:20:24. **Bukatu:** 01:22:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Ariatzako Iberlatxuko errotara joaten ziren. Hainbat errota egon ziren Muxikan: Kurtzeroan, Astelarran, Elizalden...</p>

22. Ermandadea

- **Erref:** MUX-015/059
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:24:37. **Bukatu:** 01:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ermandadeak ganadua hilez gero dirua jasotzeko balio zuen. Borondatezkoa zen. Asko egoera horretaz aprobetxatze ziren.

23. Goldaketan, laietan...

- **Erref:** MUX-015/063
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:30:27. **Bukatu:** 01:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Soloa goldatu aurretik laiatu egin behar izaten zen. Golda aurrerapen handia zela dio. Laietan zelan egiten zuten kontatzen du. Area eta narra ere erabiltzen zituzten.

24. Aita uztargilea

- **Erref:** MUX-015/066
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:32:40. **Bukatu:** 01:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bere aitak lantzean behin, auzokoren batek-edo behar zituenean uztarriak egiten zituen. Urkiaren egurra erabiltzen zuen.

25. Ilea maiatzean ebaki behar

- **Erref:** MUX-015/070
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:37:28. **Bukatu:** 01:39:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Ilargiaren garrantzia. Bere amak ilea maiatzean ebaki behar zela esaten zion, baina Gregorik lehenago gura izaten zuen. Bi txorta izaten zituen.

26. Animalia-hotsak

- **Erref:** MUX-015/073
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:40:08. **Bukatu:** 01:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txakurrak ahausi egiten du, behiak "morroza" (marruza), txerriak "irrintze", astoak arrantza, oiloak "kuku", oilarrak kukurruku eta katuak miau.

27. Astelarrako erromeria

- **Erref:** MUX-015/079
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:48:51. **Bukatu:** 01:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Parranda gutxi egindakoak direla dio. Ezkondu ostean ez zuten parranda askorik bota. Oizeko jaietara, Bizkargi egunera eta domeketan Astelarran egoten zen erromeriara joaten ziren. Astelarran "Itsua" egoten zen soinua jotzen, eta dantzan egiten zuten gizonezkoek txakur handi bat ordaindu behar izaten zuten. Iluntzerako etxera joan behar izaten zuten. Batzuetan mutilen batek lagunduta joaten ziren etxera.

28. Bizkargi eguna

- **Erref:** MUX-015/081
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:52:52. **Bukatu:** 01:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Ariatzako Santa Kurtzeak beti antzekoak izan direla dio. Bizkargi eguna, maiatzaren 3an ospatzen da; egunean bertan joaten ziren, ez hurrengo domekan. Mezara joan ostean, Aita Kurtzearen gurutzean txantelak ematen zituzten herritarrek eramandako zahagitik ardoa debalde edateko. Letainia egoten zen ermitara arte, eta txantela heltzen zirenei ematen zieten.</p>

Transkripzioa

- Hamen Ariatzako Santa Kurtzek-eta lehen zelakoak izeten zien?
- Santa Kurtzek oingo antzekoak lehen be. Bai, nik beti antzekoak ezetu dotaz /ezetutaz/ hemengoak hemengo Santa Kurtzek.
- Ta Bizkergikoak?
- Bizkergikoa Santa Kurtz egune, maietzan hirue.
- Bai, laster, hille bete barru. Eta gero hurrengo domekan be bai joaten ziñien?
- Ez, ez zan egoten. Hurrungo domekan egoten zala esaten eben, baia hurrungo domekan ez zan joaten.
- Maiatzien hiruen. Ta zer egoten zan Bizkergin? Bizkergin zer egoten zan han sasoi zu umie ziñenien?
- Ba erminttie dau han. Ta Aitte Kurtzekoa dau han Bizkergin.
- Ta zer, mezatara joan eta listo?
- Ba mezatara joan ta han kurtzien txakur zera txantelak emoten zittuezan eta gero herridxe zaragidxe eroaten eban ta haregaz txantelaz ardaue debalde.
- Ta zer zan hori txantela?
- Ba txantela emoten ban ba zelan hara kurtzera, letaiñie egoten zan, ta hara zelan allege egon garien letaiñien.

- Ta letaiñie nundik nora joaten zan ba?
- Letaiñie joaten zan: Besaizera urteten eban ta gero Besaizetik gora hona Billaure, ta Billautik Kurtziatik Bizkergire.
- Eta han batzen ziñien ezta, Larrabetzukoak gaztie, Zorrontzako gaztie, Gorozikeko gaztie?
- Bai, jente asko, jente asko joaten zan, asko, asko.
- Bai?
- Bai, asko joaten zan.
- Ta Muxiketik be asko?
- Danetik. Bizkergire, Bizkergi famosoan zan.

29. San Juan bezperako abestia

- **Erref:** MUX-015/083
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:55:30. **Bukatu:** 01:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juan suaren inguruan abestu egiten zuten: "San Juan bezpera gabien, abadiak hasarratu ziren..."</p>

Transkripzioa

- San Juan suek bai etxien ein.
- Eta inguruen jantzan edo kanteu-edo eitten zenduen?
- Bai eitten zan.

"San Juan bezpera gabien
abadiak hasarratu zien
ez zezen besterik egiten
alkarri musturrek heusitte."

Baia ez zezen entzun gure izeten.

- Eta zer sorgiñek erretako edo izeten ei zan, ezta San Juan suek? sorgiñek erretako ta
- Bai. "Gure soloan suberik bez!" esaten gendun lehen lelengo lelengo, sugiek emoten oskuen /emoteskuen/ billurre ta, suberik bez.

30. Soloak bedeinkatu; bijilia; garizumako abestia

- **Erref:** MUX-015/085
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:56:40. **Bukatu:** 01:57:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

<p>Erramu egunez gurutzeak bedeinkatzen ziren soloan ipintzeko.

Garizuman bijilia egitea garrantzitsua zen. "Garizuma santu zazpi astekoa, makailau buzten zorigaiztokoa..." abesten du.</p>

31. Herriko istorioak, kontakizunak

- **Erref:** MUX-015/091
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 02:00:11. **Bukatu:** 02:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Herriko gizon batek mozkor handiak harrapatzen zituen, eta bere emazteak tabernan sekula gehiago hankarik ez jartzeko esan zion. Gizonak kasu egin zion, tabernara joan zen, eta ardoa edan zuen hankak taberna kanpoan zituela.

Transkripzioa

- Mozkorra hartute otson /hartutetson/ andra bateri gizonak. Ta esan otsen baze: "gehidxau" esan otsen andriek etxera etor zaniene: "gehidxau ez dozu tabernan hankarik ipingo" esan otson. Ta gero ba gizonak e hurrungo tabernara joan zaniene ba tabernan hankarik ez ipintzeko esan otson ta hankak kanpoan diela baia ardaue edan biher.
- Suhia: Ta hori bestie jeusi zana basa artera ta bestiek "[...]" ez otson esan ba jeusi zanak? Basa artera jeusi zen legune.
- A bai. Mozkorragaz baserrire, basie dauen lekure jeusi. Ba bestie joan zaniene ha be jeusi basa artera, ta ba: "joño! hor dxauk hemen" esan ei otsen bata bestieri. Ta "tapeu hadi tapeu" bestiek, basiegaz tapetako.
- Hori zer muxikarrak?
- Ez daitz nor izen zan.

32. Azpigarri-meta azpian ezkutatuta

- **Erref:** MUX-015/097
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 02:05:02. **Bukatu:** 02:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, patata errekiatu egiten zuten. Etxerako patata gordetzeko, bere nebak azpigarri-metari azpian laku egiten zion bertan gorde ahal izateko. Frontea zetorrela-eta, bere neba alboko pinudi batera joan zen tapaki batekin bertan ezkutatzera; baina, beldurtuta, etxera bueltatu zen. Neba ere azpigarri-meta horretan ezkutatu zen. Auzokoak azpigarria eramaten hasi zirenean, handik irten behar izan zuen.

33. Bonbardaketan izekoaren etxean

- **Erref:** MUX-015/099
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 02:10:40. **Bukatu:** 02:13:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikako bonbardaketan, izekoaren etxean egon zen. Erromeria ostean, izekoaren etxean geratzen zen biharamunean joateko etxera. Astelehen hartan, arratsaldez Gernikara joateko asmoa zuen. Bonbak entzun zituztenean, ezkutatu egin ziren. Gernikan zeuden auzoko denak onik irten ziren, Lumorako bidea hartu zuten-eta.

34. Berorika eta hika

- **Erref:** MUX-015/103
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 02:15:27. **Bukatu:** 02:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Abadeari, maisuari, medikuari... "berori"esaten zitzaion, gaztelaniaz "usted". Hitanoa mutilekin berbetan ikasi zuen, baina ahaztu zaiola dio.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com